

Arrasateko kooperatiba esperientzia, euskaraz

2011/11/18

2008an liburu hau gaztelaniaz argitaratu zen, eta, geroago, korerrera era itzuli zen. Orduan bezala, Larraitz Altunak egin du euskarazko liburuaren edizio eta koordinazioa. Liburuaren lehen atala **Ainara Udaondo** eta **Jon Sarasuak** sortua da. Bigarrena, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren bilakaera historikoari dagokiona, **Larraitz Altunak** idatzia da, **Zigor Ezpeleta** eta **Itziar Otañoren** karrera amaierako proiektua abiapuntu hartuta. Liburuko hirugarren atalean talde zabal batek hartu du parte: **Larraitz Altuna, Ainhoa Larrañaga, Jon Sarasua, Eneritz Pagaldai, Joseba Azkarraga, Arianne Kareaga, Leire Uriarte** eta **Aitzol Loyola**.

Arrasateko esperientzia kooperatiboa erreferentzia ezinbestekoa da munduan kooperatibismoari dagokionez, eta sortu zenetik, orain mende erdi, ikerketa eta argitalpen asko eragin ditu. Hala ere, egileen iritziz, faltan sentitzen zen lan bat, eskainiko zuena Mondragon esperientziaren ikuspegi orokorra. Horixe da, hain zuzen, lan horren egiteko nagusia: irakurlearen esku jartzea sintesi bat, sarri aipatu diren arloak hartuta, eta ahazturaren putzuan jausi direnak, irakurleak errazago irudika dezan zer den ezinbestekoa eta zer berezia esperientzia kooperatiboan.

